



Mandala propioak sortzeko gida

Argibidea orokorrak

Mandalak nahiz beste irudiak ikasleen ezagutza prozesua ebaluatzeko lagungarri izan daitezke. Kasu hauetan, ikasleek ikasitako eduki eta prozedurak mandala forman islatzea da xedea. Dena den, kontuan izan behar dugu ez dela sekula ere egindako mandalen edertasuna neurtuko. Horren ordean, ikasleak mandala horiek osatzerako orduan ikasitako kontzeptuekin eginiko erabilera eta konexioa baloratuko da, eta baita lana egiterako unean izandako jarrera ere.



Mandala propioak sortzeko gida

1. Simetriaren bila

1. Lehenik eta behin, zerrenda itzazu gai honetan landu dituzun eduki eta kontzeptuak beheko taulan.
2. Objektu bera irudikatzeke mila modu daude: marrazki errealista bat egin dezakegu edo, aldiz, marrazki sinpleago bat. Erreparatu hurrengo [esteka honetako](#) mendiaren adibideari:

- Lehen laukitxoan, saiatu dagokion kontzeptu edo elementua irudikatzen ahalik eta modurik zehatzenean, eta arkatza bakarrik erabiliz.
- Bigarren laukitxoan, saiatu elementu bera era sinpleagoan irudikatzen. Horretarako, elementu horren ezaugarri adierazgarrienak nabarmendu ditzakezu.
- Hirugarren laukitxoan, dagokion elementuaren irudirik sinpleena egiten saiatu. Bigarren eta hirugarren laukitxoetarako punta lodiko errotuladorea erabiltzea gomendatzen dizugu, xehetasunak alde batera uzteko.

Teknika bera erabiliz, osatu taulako gainerako laukitxoak.

UNITATEA:		GAIA:	
KONTZEPTUA	1. IRUDIA	2. IRUDIA	3. IRUDIA

Hezkuntza Sailak diruz lagundutako materiala.



www.mandala-zientifikoak.eus

Mandala propioak sortzeko gida

1. Simetriaren bila


UNITATEA:		GAIA:	
KONTZEPTUA	1. IRUDIA	2. IRUDIA	3. IRUDIA



Mandala propioak sortzeko gida

1. Simetriaren bila

3. Marrazkiak egin ondoren, simetria lantzeko ordua da. Izan ere, emaitza harrigarriak lor ditzakegu mandalak sortzean simetriarekin jolastuz. Hori baino lehen, ordea, landu dezagun simetria. Saia zaitetz irudiak osatzen, marra zuzena simetria ardatz gisa erabiliz.




Mandala propioak sortzeko gida

1. Simetriaren bila

4. Zerrendatutako irudiak simetriko bihurtuko ditugu orain.

- Horretarako, hartu paper zati bat (lau zatitan moztutako folio baten zati bat izan daiteke) eta tolestu ezazu erditik.
- Ondoren, marraztu taulan aipatutako elementu baten erdia tolesturaren albo batean.
- Moztu sortu duzun marrazkiaren silueta papera tolesturik duzula (bi aldeak moztu).
- Horrela, erraz-erraz gehitu diozu simetria hasierako irudiari.
- Egin gauza bera zerrendako gainerako elementuekin.




Mandala propioak sortzeko gida

1. Simetriaren bila


5. Mandalaren zirriborria sortuko dugu orain:

- Aukeratu jarraian ageri diren euskarriak eta osatu zeure mandala propioa.
- Simetria osatzeko, kokatu zirkuluaren ardatzetan tolestura bidez sorturiko irudiak eta, ondoren, kalkatu ezazu. Hala, irudi bera simetria ardatz ezberdinetan kokatuz, mandala ederra lortuko duzu.
- Mandala osatzen zabiltzan bitartean, idatzi zirriborria egiten ari zaren orrian burura etortzen zaizkizun ideiak. *"Hau hemen marraztuko dut errealitatean elementu honen ondoan baitago..."*



Mandala propioak sortzeko gida

1. Simetriaren bila





Mandala propioak sortzeko gida

1. Simetriaren bila

6. Behin betiko mandala

- Mandalaren zirriborroa bukatzean, nabarmendu guztia errotuladore beltz bat erabiliz.

7. Erakutsi mandala zure ikaskideei, eta azaldu nola eta zergatik sortu dituzun mandalaren elementuak. Nahi izanez gero, zuk sortu duzun mandala koloreztatu dezakezu, edo alboko ikaskideari eman, hark koloreztatu dezan zuk berea koloreztatzen duzun bitartean.

